

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

*Tolosarrei euskara ikasteko dirulaguntzak emateko orgehiagokako araubidez emateko deialdi irekia.*

1. Xedea.
2. Bete beharreko baldintzak.
3. Finantziazioa.
4. Eskaerak.
5. Diru laguntzen zenbatekoa.
6. Erabakia.
7. Onuradunen betebeharrak.
8. Diru-laguntza ordaintzeko modua.
9. Diru-laguntzen bateragarritasuna.
10. Diru-laguntza aldatzea.
11. Zuzenbide osagarria.
12. Errekurtsoak.

*1. Helburua.*

Diru-laguntza hauen helburua da Tolosako herritarrak euskara ikastera bultzatzea.

*2. Bete beharreko baldintzak.*

Dirulaguntza eskuratu nahi duen bizilagunak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

– Tolosan erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago gutxienez.

– HABEK homologatutako euskaltegiaren batean euskara ikastaro batean matriculatu izana.

– Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.

– Laguntza jasotzeko gutxienez honako asistentzia izan dela egiaztatzea: % 85. Egiaztapena dagokion euskaltegiak egina izan behar du.

– Ikaslearen errendimenduaz irakaslearen aldeko agiria izatea. Euskaltegiko zuzendariak datu hauek balidatuko ditu dagokion lekuan.

*3. Finantziazioa.*

Tolosako Udalaren 2019ko aurrekontuko 0900 481.0133510 partidaren kargura, 55.000 euro.

*4. Eskaerak.*

Eskaerak Udalak emandako inprimakian aurkeztu beharko dira, Udaleko sarrera erregistroan, 2019ko urriaren 30a baino lehen, ondorengo dokumentazioarekin batera:

– Matrikularen ordainagiria. Beti ere, ez bada Aitzol Udal Euskaltegian matriculatu.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Convocatoria abierta para la concesión, en régimen de concurrencia competitiva, de subvenciones para los/las tolosarras que estén aprendiendo euskera.*

1. Objeto.
2. Requisitos.
3. Financiación.
4. Solicitudes.
5. Importe de las subvenciones a conceder.
6. Resolución.
7. Obligaciones de la parte beneficiaria.
8. Forma de abono de la subvención.
9. Compatibilidad de las subvenciones.
10. Modificación de la subvención.
11. Derecho supletorio.
12. Recursos.

*1. Objeto.*

El objeto de estas subvenciones es impulsar el aprendizaje del euskera en la población de Tolosa.

*2. Requisitos.*

Las personas que deseen recibir esta subvención deberán reunir los siguientes requisitos:

– Estar empadronadas en Tolosa al menos 15 días antes del comienzo del curso.

– Haberse matriculado en un cursillo de euskera en un euskaltegi homologado por HABE.

– No estar incurso en ninguna de las causas señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.

– Para recibir la subvención deberán certificar como mínimo la siguiente asistencia: 85 %, que será acreditada por el euskaltegi correspondiente.

– Tener un informe favorable del docente sobre el rendimiento del alumno. El/la Director/a validará estos datos donde corresponda.

*3. Financiación.*

Importe de 55.000 euros a cargo de la partida 0900 481.0133510 del presupuesto municipal del 2019.

*4. Solicitudes.*

Las solicitudes se deberán presentar en el impreso facilitado por el Ayuntamiento, en el Registro de entrada del mismo, antes del 30 de octubre de 2019, junto con la siguiente documentación:

– Recibo del abono de la matrícula, en caso de que no sea en el euskaltegi Municipal Aitzol.

– Euskaltegiaren ziurtagiria, asistentziaren zenbatekoa, maila bakoitzari dagozkion azterketa egin izana eta errendimendua zuzena izan den azalduko dituen. Beti ere, ez badu Aitzol Udal Euskaltegiaren ikasi.

– Beste erakunde pribatu edo publiko batetik jasotako edo hitzartutako diru-laguntzak, behar bezala egiaztatuta. Bestela, dirurik jasotzen ez delako zinpeko aitortpena.

– Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiria edo udaletik hori egiaztatu ahal izateko baimena.

– 5.3 puntuan azaltzen diren baldintzetako bat betetzen dutenek dokumentazio osagarri hau aurkeztu beharko dute:

LAGS jasotzen aritzearen Lanbidek emandako ziurtagiria.

Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen dituen prestazioak jasotzeko egoeraren batean egotearen ebazpena. Betiere, Tolosako Udalak ematen ez badio aipatutako prestazioa.

– Indarrean dagoen Familia Ugariaren Txartelaren kopia.

#### 5. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Emango diren laguntzak honako hauek izango dira:

5.1. Aurrez aurreko eskoletan eta modulu konbinatueta:

B2 arteko ikastaroetan, matrikularen % 75.

C1 ikastaroetan, matrikularen % 50.

C2 ikastaroetan, matrikularen % 25.

5.2. Autoikaskuntza:

Matrikularen % 75.

5.3. Matrikula osoaren laguntza emango zaie honako baldintza hauek betetzen dituztenei:

Familia unitateko kide bakoitzak urteko, batez beste, LAGSek bermatzen duen diru-sarrera gordina ez gaingitzea.

Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzea. Kasu honetan, materialaren kopurua ere ez dute ordaindu beharko.

Familia ugariaren txartela indarrean edukitzea.

#### 6. Erabakia.

Eskaerak iritsi ahalaz aztertuko ditu Euskara Departamentuak.

Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, dirulaguntzak emateko proposamena egingo zaio Alkatezari erabakia har dezan.

Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez lau hilabete epean hartuko da erabakia.

Epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertuko da.

Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

#### 7. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunaren betebeharrak dira:

a) Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan xedatutakoa.

b) Dirulaguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Tolosako Udalaren aurrean justifikatzea.

– Certificado del euskaltegi correspondiente en el que se recoja la asistencia a las clases, que se han realizado los exámenes correspondientes a cada nivel y el rendimiento del alumno, en caso de que no sea en el euskaltegi Municipal Aitzol.

– En caso de recibir otra subvención desde otra entidad pública o privada, certificación de las misma. En caso contrario, declaración jurada de no recibir ningún otro tipo de subvención para el mismo fin.

– Autorización al Ayuntamiento para comprobar si se está al día con Hacienda y con la Seguridad Social o Certificado de los mismos.

– En el supuesto en el que se cumplan los requisitos del 5.3, los siguientes documentos que acrediten dicha situación:

Certificado de Lanbide de estar recibiendo la RGI.

Resolución acreditativa de la recepción de las ayudas, siempre y cuando no las conceda el Ayuntamiento de Tolosa.

– Copia del Título de familia numerosa en vigor.

#### 5. Importe de la subvención.

Las subvenciones se concederán conforme a lo siguiente:

5.1. En clases presenciales y módulos combinados:

En cursillos de nivel inferior o igual a B2, el 75 % de la matrícula.

En cursillos de nivel C1, el 50 %.

En cursillos de nivel C2, el 25 %.

5.2. Autoaprendizaje:

El 75 % de la matrícula.

5.3. Se subvencionará el 100 % de la matrícula a las personas que cumplan los siguientes requisitos:

Que cada miembro de la unidad familiar no tenga, como promedio, unos ingresos brutos anuales superiores a lo establecido en la RGI.

Cumplir los requisitos económicos para recibir una de las prestaciones para la inclusión social y la garantía de ingresos que ofrece el sistema vasco. En este caso, tampoco tendrán que abonar el importe del material.

Poseer el título de familia numerosa en vigor.

#### 6. Resolución.

El Departamento de Euskera examinará las solicitudes a medida que se presenten.

Una vez que el Departamento haya emitido su informe técnico, se propondrá la concesión de subvenciones a Alcaldía, para que esta dicte la resolución correspondiente.

Se notificará la resolución a la persona interesada.

La resolución se adoptará como máximo en el plazo de cuatro meses tras la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Transcurrido dicho plazo, si el Ayuntamiento no ha adoptado ninguna resolución respecto a alguna solicitud, se entenderá que dicha solicitud no ha sido aceptada.

El Ayuntamiento podrá requerir toda la información complementaria que considere necesaria para formular la propuesta de acuerdo.

#### 7. Obligaciones de las personas beneficiarias.

Obligaciones de las personas beneficiarias:

a) Lo regulado en el artículo 11 de la Ordenanza General.

b) Justificar ante el Ayuntamiento de Tolosa el cumplimiento de las condiciones, actividades y objetivos tenidos en cuenta para la concesión y uso de la subvención.

c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketan pean jarzea.

d) Tolosako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste dirulaguntzen berri ematea.

e) Jasotako dirulaguntza itzultzea, horretarako arrazoiren bat izango balitz.

#### 8. Diru-laguntza ordaintzeko modua.

Udalak erabakia hartu eta gero ordainduko du onartutako diru-laguntzaren % 100.

#### 9. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu berberengatik jasotako beste edozein dirulaguntzarekin.

Hala ere, dirulaguntza ezin izango da izan, beste dirulaguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua gainditzeko adinakoa.

#### 10. Dirulaguntza aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

#### 11. Zuzenbide osagarria.

Deialdi honetan espresuki zehaztuta ez den orotan, lege eta ordenantza hauek izango dira aplikaziozkoak:

– Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); horren garapeneko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*).

– Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen diru laguntzen ordenantza orokorra (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2017ko uztailaren 7a, 130 zk.).

– Tolosako Udaleko Euskara Zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait diru laguntza arautzen dituen ordenantza (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2017ko uztailaren 10a, 131 zk.).

#### 12. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Tolosa, 2019ko irailaren 4a.—Xabier Balerdi, zinegotzi delegatua. (5687)

c) Someterse a las actuaciones de comprobación que deba realizar el Ayuntamiento.

d) Comunicar al Ayuntamiento de Tolosa cualquier otra subvención que le haya sido otorgada para la misma actividad que ahora se subvenciona.

e) En caso de que exista algún motivo para la devolución de la ayuda recibida, efectuar dicha devolución.

#### 8. Forma de abono de la subvención.

El Ayuntamiento abonará el 100 % de la subvención una vez que se adopte el acuerdo de concesión.

#### 9. Compatibilidad de las subvenciones.

La subvención concedida por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin.

No obstante, el importe no podrá exceder, por sí solo o en concurrencia con otras subvenciones, del coste de la actividad subvencionada.

#### 10. Modificación de la subvención.

Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgada por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión de la ayuda.

#### 11. Derecho supletorio.

En todo lo no previsto en la presente convocatoria serán de aplicación las siguientes disposiciones legales:

– La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* de 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (*Boletín Oficial del Estado* de 25 de julio).

– La Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 7 de julio de 2017, n.º 130).

– La Ordenanza reguladora de diversas subvenciones sobre programas gestionados por el Servicio de Euskara del Ayuntamiento de Tolosa (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 10 de julio de 2017, n.º 131).

#### 12. Recursos.

Contra la presente convocatoria podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, o impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria.

Tolosa, a 4 de septiembre de 2019.—El concejal delegado, Xabier Balerdi. (5687)